

HEZKUNTZAN, 4.0 INDUSTRIAN, ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN ETA ZIBERSEGURTASUNEAN SORTU DIREN ERRONKEI AURRE EGITEKO IRTENBIDE TEKNOLOGIKOAK ETA LAN EGITEKO MODU BERRIAK EMANGO DITUZTE EZAGUTZERA LIBRECON JARDUNALDIAN, TEKNOLOGIA IREKIEI BURUZKO ERREFERENTZIAKO EKITALDIAN

Jardunaldia datorren azaroaren 11n egingo da, online formatuan, ESLEk, Euskadiko teknologia libreko eta ezagutza irekiko enpresen elkarteak, eta ASOLIFek, estatu-mailako federazioak, antolatuta.

Pandemiak areagotu dituen erronkei aurre egiteko, aberastasuna sortzeko eta tokiko ekonomiak sustatzeko open teknologiek eskaintzen dituzten aukerak nabarmenduko dituzte.

BILBO, 2020ko azaroaren 5a. Teknologia irekien sektoreko nazioarteko ekitaldi handia online formatuan egingo da aurten, azaroaren 11n. Egungo egoeran **digitalizazio-prozesuak bizkortzeak** duen garrantzia azpimarratuko dute bertan, eta **gizarteak dituen erronkei aurre egiteko teknologiek eskaintzen dituzten aukerak** erakutsiko dituzte.

COVID-19ak sorrarazitako egoeraren ondorioz, enpresen eta horien negozio-ereduen digitalizazio-prozesua are premiazkoagoa da. Egoera berriak zenbait erronka ekarri ditu, ez bakarrik teknologikoak, baita pertsonen, lan egiteko moduen eta harremanen ingurukoak ere.

Teknologia berriak, egoera honetan, erronkei erantzuteko **aukerarik onena** dira; izan ere, berritzeko gaitasuna dute ingurune digital hobea sortzeko, tokiko ekonomiak sortu eta sustatu ditzakete, urrutiko lana dute oinarri, eta beste teknologia batzuk baino lehiakorragoak dira eta ezarpen-kostu txikiagoa dute.

Open source teknologiei buruzko jardunaldian eztabaidagai izango dira, besteak beste, industriak, administrazio publikoak, hezkuntzak eta beste sektore batzuek bizi duten eraldaketa digitala; erakundeen antolaketa-eredu berriak; pertsonak eta urrutiko lana; telehezkuntzarako eskubidea bermatu beharra, eta horren guztiaren ondorio diren zibersegurtasunaren arloko erronkak.

Egoerari egokituta, ekitaldia streaming bidez emango da Euskalduna jauregitik, irekian, eta [esteka honetan](#) izena ematea nahikoa da zuzenean jarraitu ahal izateko. Jardunaldia IKTen sektoreari, industriari, arlo akademikoari, kluster profesionalei eta administrazio publikoko arduradun eta teknikariei zuzenduta dago.

«Onartu berri den Open Source Software 2020-23 estrategian Europako Batzordeak onartzen duenez, teknologia irekiak funtsezkoak dira zerbitzu publikorako eta Europaren teknologia-burujabetzarako, diru publikoaren erabilera hobea bermatzen dutelako, softwarea berrerabiltzea sustatuz efizientzia hobetzen dutelako, eta funtzionalitateak hobetzea bultzatzen dutelako. Azken finean, gure gizarteak dituen erronka handiei erreparatzen badiegu, guztiontzat dira onuragarriak, eta hori ikusiko dugu Biltzarrean», azaldu du Eneko Astigarragak, Euskadiko teknologia libreko eta ezagutza irekiko enpresen elkarteko (ESLEko) lehendakariak.

Ibone Bengoetxeak, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuak, honako hau azpimarratu du: «Poz handiz ikusten dugu hasiera batean iturri irekiko softwareari buruzko kongresu bat zenak zabaldu egin duela bere irismena, eta, gaur egun, teknologia irekiak ez ezik, lankidetzak eta ezagutza partekatzea oinarri duten lan egiteko moduak ere hartzen dituela barne». Horrez gain, diputatuak nabarmendu duenez, egungo testuinguru aldakorrean, «badirudi berrikuntzak, sortzen ari diren teknologien eskutik, trantsizioa erraztu dezakeela industria-ekonomia tradizionalaren ohiko antolamendu-jarduera eta -tekniken eta ezagutzaren ekonomia global berriak proposatzen dizkigun antolamendu-dinamika eta -moduen artean». Ildo horretan, «Erakundeok sarean lan egiten badugu, beste batzuei laguntzen badiegu eta beste batzuen laguntza jasotzen badugu, malguagoak eta lehiakorragoak izan gaitezke», ziurtatu du.

Bestalde, Oihane Agirregoitiak, Bilboko Udaleko nazioarteko gaietako zinegotzi eta BilboTIKeko lehendakariak, egungo erronkei aurre egiteko eraldaketa digitalak duen garrantzia azpimarratu du: «Ausardiaz heldu beharreko erronkak dira susperraldi ekonomikoa eta enpleguaren sorrera, betiere zerbitzu publikoak eta kohesio soziala bermatuz, sarrerak murrizten eta aurrekontuak doitzen ari diren testuinguru honetan». Haren hitzetan, erronka horiek gainditzeko, «eraldaketa digitala sustraitu behar dugu gure jarduketa guztietan, zentzuz, modu jasangarrian, pertsona guztiak errespetatuz eta egunero aldatuz doazen beharrak kontuan hartuta». Azkenik, «teknologiak eskaintzen dizkigun neurri eta aukera tekniko bidez, Administrazioako lan-prozesuak hobetu eta optimizatu egin ahal izango ditugu», adierazi du.

Aitor Cobanerak, SPRI Taldeko Enpresa Sustapeneko zuzendariak, Librecon-en edizio honen esloganaren egokitasuna azpimarratu du: «Open Teknologia erronka berrietarako». Izan ere, «guztiok ohartzen gara gure gizartean gertatzen ari den eraldaketa digitalaz, eta eraldaketa hori are azkarragoa da egungo pandemiaren ondorioz». Zentzu horretan, Cobanerak jakinarazi duenez, Eusko Jaurlaritza eta SPRI lanean ari dira Euskadi 2025 Eraldaketa Digitalerako Agenda berria prestatzen, «DIGITAL EUROPE» estrategiak finkatutako helburu eta joerekin bat.

Egungo egoeran agerian gelditu da zein garrantzitsua den **sektore estrategikoetan, hala nola teknologian, industria propioaren jabe izatea**. Teknologia irekiek sustatu egiten dituzte tokiko ekonomiak eta herrialderako aberastasuna sortzea. Biltzarrean kasu praktikoei helduko diete eta Open Source teknologia erakutsiko dituzte; izan ere, lehen bezala orain ere, COVID-19aren garaian, oso erabilgarriak dira.

Erronka handiei erantzutea

Aurtengo edizioan 5 gai nagusi eta bakoitzak dituen erronkak izango dira aztergai. Telelanaren inguruan, partaideek zenbait erronka hartuko dituzte hizpide: berrikuntza, lana antolatzeko eredu berrietan; nazioarteko lantalde handien kudeaketa eraginkorra; enpresa-kultura urrutitik sortzea; urrutiko lana arautzen duen Lege-dekretu berria, eta abar.

Halaber, urrutiko hezkuntzan eta online hezkuntzan urteak daramatzaten erakundeen esperientzia ezagutaraziko da. Urrutiko hezkuntza larrialdiko konponbide gisa eta online hezkuntza Interneten oinarritutako hezkuntza-estrategia gisa aztertuko dira. Hala, milaka erakundek azkar egin behar izan duten egokitzapena erraztea izango da kontua, eta sortu diren beharrei erantzuten dieten kode irekiko irtenbideen berri ematea.

Zibersegurtasunaren atalean, telelana areagotzearen eta digitalizazioaren ondorioz enpresek dituzten arrisku nagusiak izango dira eztabaidagai, eta horiei aurre egiteko teknologia irekiek proposatzen dituzten konponbideak azalduko dituzte.

Jardunaldia osatzeko, 4.0 Industriaren gaia eta administrazio publikoak eraldaketa digitalean dituen erronkak ekarriko dituzte mahai gainera. Era berean, azaleratzen ari diren teknologia-beharrei erantzuteko abangoardiako open source tresnak eta irtenbideak ezagutzeko aukera eskainiko du Biltzarrak.

LIBRECON 2020 ekitaldiaren babesle dira Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza.

www.librecon.io/programa

Prentsa: Yolanda Busters (606 01 90 60)